

Kimikako Espainiako Errege Elkarteak Aitziber López Cortajarena saritu du

Aitziber López Cortajarena Ikerbasque irakasle eta CIC biomaGUNEko zuzendari zientifikoak RSEQren 2022ko Ikerketa Bikaintasunaren Sariaren aintzatespena jaso du

Hautagaiek aurreko 5 urteetan egin duten ikerketa-ibilbidea baloratzen du sariak

Donostian, 2022ko apirilaren 29an. Kimikako Espainiako Errege Elkarteak 2022ko Ikerketa Bikaintasunaren sarietako bat eman dio CIC biomaGUNE Biomaterialen alorreko Ikerketa Kooperatiboko Zentroko zuzendari zientifikoari, Aitziber López Cortajarenari. Sari horrek hautagaien azken urteetako ibilbidea aitortzen du; sariaren aurretiko 5 urteetako.

López Cortajarena, Ikerbasque irakaslea, oso pozik dago sariarekin: "Ohorea da niretzat, aintzat hartzen badugu estatuan egiten den kimikak zer maila altua duen eta bai aurreko urteetan saritutako pertsonen maila zientifikoa zein den. Sari honen bidez, kimikarien komunitateak zuzeneko aitortpena egiten dio azken urteetan egin dugun lanari, eta hori oso polita eta atsegina da". Irakaslea oso esker oneko ageri da bere ibilbidean lagun izan dituen pertsona guztiak: "Urte hauetan nire ikerketa-taldea osatu duten pertsonak, haien talde-lanaren emaitza baita sari hau; lankidetzan eta hartu-emanen jardun dudana pertsona guztiak; mentoreak, irakasle izan baititut, eta orain arte nire ibilbide zientifikoa lagundu didaten pertsonak". Ikertzaileak adierazi duenez, halako aintzatespenek "animatzen gaituzte benetan sinesten dugun ikerketa-ildoetan ilusioz lan egiten jarraitzera; izan ere, saria horiek aitortzera dator orain. Gure ikerketa-zentroarentzat, CIC biomaGUNErentzat, garrantzitsua da gure ikerketa-jarduera aintzatesten duten halako sari ospetsuak jasotzen jarraitzea".

Aitziber López Cortajarena Ikerbasque irakaslearen intereseko ikerketa-arloak ingeniari-tza biomolekularrean eta ingeniari-tza biomolekularrak nanoteknologiarekin duen loturan oinarritzen dira; biomolekulak (bereziki proteinak) eta nanomaterialak konbinatzen diren sistemetan oinarritutako tresna molekularrak eta materialak garatzen dituzte, bi osagaien funtzionalitateak baliatuz. Halaber, sistema horiek bereziki aplikazio biomedikoetan izan ditzaketan aukerak ustiatu nahi ditu irakasleak (terapia diagnostikoan).

Ibilbide oso bati gehitzen zaion aintzatespena

Cortajarena irakasleak CIC biomaGUNEren zuzendaritza zientifikoa hartu du 2022an. Biokimikako doktoretza egin zuen Euskal Herriko Unibertsitatean 2002an. Ondoren, doktoratu ondoko bekadun gisa lan egin zuen Yaleko Unibertsitatean (AEB), proteinen diseinu, egitura eta funtzioaren inguruan. 2006an, zientzialari bisitari gisa aritu zen Weizmann Institutuan (Israel) Ondoren, Yaleko Unibertsitateko lanari heldu zion berriro, ikertzaile elkartu gisa. 2010ean, IMDEA Nanociencia (Madril) hasi zen lanean, eta bionanoteknologiari buruzko ikerketa-talde independentea osatu zuen, 2016an CIC biomaGUNEra aldatu aurretik. Zenbait europar proiekturen buru izateaz gainera (haien artean, Europako Ikerketa Kontseiluak emandako ERC Consolidator Grant bat eta bi ERC

Proof of Concept), Ikerbasquek saria eman zion 2019an, ikertzaile gisa egindako ibilbide profesionala eta egindako ekarpen zientifikoak aitortzeko.

Cortajarenak gidatzen duen [Nanoteknologia Biomolekularra](#) laborategiak lau FET Open europar proiektu ditu eskuartean (Horizon 2020 programakoak), eta [EIC Pathfinder](#) deialdiko bosgarren europar proiektu lehiakor bat (Horizon Europe programaren barnean). Pathfinder programaren bidez, European Innovation Council (EIC) erakundeak teknologia erabat berriak sortzeko ideia berritzaileen ikerketa sustatzen du, eta diziplina arteko abangoardiako lankidetzaz zientifikoak bultzatzen. Duela gutxi, Cortajarenak [ERC Proof of Concept](#) hornidura ezagunetako bat jaso du, ezagutzaren mugan egiten den funtsezko ikerketatik sortzen diren ideiak garatzeko eta industriari hurbiltzeko.

Laborategiak ikerketa-ildo oso desberdinak ditu, eta helburu dute “egiten dugun ingeniaritza molekularrak eskaintzen dituen aukerak aplikatzea: ikertzen ari gara nola maneia ditzakegun biomolekulak eta nola konbina ditzakegun biomolekulak eta nanomaterialak tresna berriak sortzeko; nola ezar ditzakegun oso aplikazio desberdinetan —azaldu du—. Askotariko proiektuak dira, hala nola bioelektronika eta gailu bioelektroniko malguak (gailu ezargarriak, adibidez), datu-biltegiatzearekin lotutakoak (DNA eta nanomaterialen teknologietan oinarritzen direnak), argiztatze-proiektuak, eta sensorikakoak”. EICK finantzaturako azken proiektuaren bidez, ikertaldea hauek landuko ditu: “DNAn oinarritutako sentore berri batzuk eta haiek proteinek in dituzten interakzioak ikertuko ditugu, eta, sentore horien bidez, ez dugu molekula jakin bat detektatu nahi, baizik eta haren egitura-konformazioa hauteman nahi dugu: gai izan nahi dugu konformazio-egoera jakin batean edo bestean dauden molekula bereizteko, haiek neuroendekapenezko patologia batzuekin erlazionatzeko (Parkinsona, adibidez)”, erantsi du.

CIC biomaGUNEri buruz

CIC biomaGUNE biomaterialen alorreko ikerketa kooperatiboko zentroak, zeina Basque Research and Technology Allianceko ([BRTA](#)) kide baita, punta-puntako ikerkuntza egiten du Kimikaren, Biologiaren eta Fisikaren arteko eremuan, eta arreta berezia jartzen du nanoegitura biologikoen eskala molekularreko propietateetan, bai eta haien aplikazio biomedikoetan ere 2018an, “María de Maeztu” Bikaintasun Unitate izaera aitortu zioten bikaintasun-baldintzak betetzeagatik, zeintzuen bereizgarri baita dagokion jarduera-esparruan inpaktu handia eragitea eta lehiakortasun-maila handia izatea mundu mailako zientzian.